



## Golden Apple Quartet

### 17 urte bidean

Golden Apple Quartet talde donostiarrak hamazazpi urte bete ditu musikaren alorrean. Bere ibilbide oparo eta anitza oinarri harturik, "Aniversario 17 años Golden" ikuskizuna eskainiko du Antzoki Zaharrean, uztailearen 13tik 17ra bitartean. Saio guztiak 20.00etan izango dira.

## Beldurra Intxaurrondon

"Zinea kalean" egitarauaren ildotik, beldurrezko filmak ikusi ahal izango ditugu Intxaurrondoko Gabriel Celaya plazan, 22.30etik aurrera. Uztailearen 16an, asteazkena, Gore Verbinski zinemagilearen "The Ring" filma eskainiko da. Hilaren 17an, osteguna, Paul W. Anderson-en "Resident Evil" emango dute. Hilaren 18an, M. Night Shyamalan entzutetsuaren "Señales". Eta, hilaren 19an, azkenik, Jaime Balaguero katalunjarren "Darkness" iluna. Beldurraren maitaleak asetzeko moduko zine egitaraua, zinez.



## Kale antzerkia Grosen

Kale antzerkiak gozatzeko aukera ezin hobea dago aste honetan, Gros auzoan. Hala, astearte-  
an, hilak 15, Jokulandiaren "Buru-hausgarriak"

ikuskizuna izango da Txofre plazan, 18.00etan.

Asteazkenean, hilak 16, "Mamutxak" lana eskainiko du Kukubiltxo taldeak Katalunia plazan, 19.00etan. Ostegunean, azkenik, "Elvis, ¡vete ya!" antzezlanak izango da Txofre plazan, 20.00etan.



- "Txiki" Zabaloren marrazki, kartel eta ilustrazio erakusketa. Koldo Mitxelena kulturunekeo Ganbara aretoan, uztailearen 12a arte.

- Bakearen aldeko eta biolentziaren aurkako biñeta erakusketa. Amarako Ernest Lluch kultur etxean, uztailearen 12a arte.

- Alfonso Berridiren eskultura eta argazkiak ikusgai. DV Galerian (San Martín 5), uztailearen 13a arte.

- "Txikiller". Lorena Amorosen pinturak ikusgai Galeria Dieciseis aretoan, uztailearen 15a arte.

- A. R. Penck alemaniarren pin-

tura erakusketa. Altxerri galerian, uztailearen 16a arte.

- Marcos Rodríguez-Piñero argazkilariren "Atlas" erakusketa. Argazkilaritza Elkartearen (San Juan 17), uztailearen 16a arte.

- Nahikari Hospital Jauregi pintorearen "Zuhaitzak" erakusketa. Kutxa Erakusketa Aretoan (Bulebarra), uztailearen 27a arte.

- Virginia Bosch artistaren eskulturak. Kutxa Erakusketa Aretoan (Bulebarra), uztailearen 27a arte.

- "Zuloaga desde la barrera. Pintore baten pasioa". San Telmo Museoko 1, 2 eta 3. aretoetan. Uztailearen 18tik 31 arte.

- Txillida, Balerdi, Zumeta, Tapiés, Miró, Manolo Valdés eta Koldobika Jauregi artisten obra grafikoa ikusgai. Ekain Artelanak aretoan (Iñigo 4), abuztuaren amaiera arte.

- "Hegazkingintzaren mendea". Miramongo Zientziaren Kutxagunean, irailaren 14a arte.



## El Bicho

### Kandela aretoan

El Bicho musika talde madrildarrak pop musika eta flamenkoa uztartzen ditu. Estreinako diskoaren abestiak eskainiko ditu ostiral honetan, hilak 11, Antiguako Kandela aretoan, 23.30ean.